**Uztarria.com** **Martxoa**

## MARTXOKO ARGAZKIEN OINAK. HIL HONETAN...



alex silva



### *1, 2 eta... klik!*

**ARGAZKIAK.** Azpeitian betidanik izan da sokamuturrerako zaletasuna. Azpeitiko belaunaldi desberdinek gozatu dute tradizio horren indarra. Ohitura hori behin eta berriz erretratuetan jasotzen ez dira nazkatu azpeitiar argazkilariak. Urtero, txukun-txukun eta lanak ongi eginda etortzen zaizkigu Argazkilari Elkartekoak erakusketekin. Ohitura horretan urteak daramatza Joxe Ramon Larrañagak. Zorionak!



### *Ziklogenesi lehergarria*

**HAIZETEA.** Zer arraio da hitz hori? Horrela ibili ziren gozotegi ezagun baten mahaiaren inguruan, martxo hasieran. Orain galdetuz gero, ziur badakitela. Azpeitian gogor jo zuen haizeak eta grazia gutxi egingo zien autoen gainera etxeetako teilatua erori zitzaienei.



### *Berdintasuna lortuta*

**LILATOIA.** Ni jaio berri nintzela antolatu zuten lehen aldiz Lilatoia Donostian. Zer ote zen hura? Lasterketa, baina lilaz jantzita? Antza denez erreibindikazio helburua zuen, gizonezkoek eta emakumezkoek lasterketetan trataera berdina lortzeko. Bai eskubideei, bai parte-hartzaileei eta bai garaikurrei dagokionez. Batzuk diote dagoeneko hori pasatuta dagoela. Dagoeneko berdintasuna lortuta dagoela. Nonbait, emakume azpeitiarrek ez dute hori uste eta 57 izan dira aurten Lilatoiaren XXI. edizioan parte hartu dutenak.

## MARTXOKO ARGAZKIEN OINAK. HIL HONETAN...



alex silva



### 1, 2 eta... klik!

**ARGAZKIAK.** Azpeitian betidanik izan da sokamuturrerako zaletasuna. Azpeitiko belaunaldi desberdinek gozatu dute tradizio horren indarra. Ohitura hori behin eta berriz erretratuetan jasotzen ez dira nazkatu azpeitiar argazkilariak. Urtero, txukun-txukun eta lanak ongi eginda etortzen zaizkigu Argazkilari Elkartekoak erakusketekin. Ohitura horretan urteak daramatza Joxe Ramon Larrañagak. Zorionak!



### Ziklogenesi lehergarria

**HAIZETEA.** Zer arraio da hitz hori? Horrela ibili ziren gozotegi ezagun baten mahaiaren inguruan, martxo hasieran. Orain galdetuz gero, ziur badakitela. Azpeitian gogor jo zuen haizeak eta grazia gutxi egingo zien autoen gainera etxeetako teilatua erori zitzaienei.



### Berdintasuna lortuta

**LILATOIA.** Ni jaio berri nintzela antolatu zuten lehen aldiz Lilatoia Donostian. Zer ote zen hura? Lasterketa, baina lilaz jantzita? Antza denez erreibindikazio helburua zuen, gizonezkoek eta emakumezkoek lasterketetan trataera berdina lortzeko. Bai eskubideei, bai parte-hartzaileei eta bai garaikurrei dagokionez. Batzuk diote dagoeneko hori pasatuta dagoela. Dagoeneko berdintasuna lortuta dagoela. Nonbait, emakume azpeitiarrek ez dute hori uste eta 57 izan dira aurten Lilatoiaren XXI. edizioan parte hartu dutenak.